

TTIP, CETA... BIZI ALA IRENTSI. ¿TE LOS VAS A TRAGAR?

Aurten ere, gizarteko hainbat kolektibok salaketa- eta aldarrikapen-egun bihurtu nahi dugu urriaren 17a, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna.

Euskadin, Estatuan eta Europan gorabidean jarraitzen du pobreziak. Euskadin, herritarren % 4,9 bizi da pobrezia larrian; hau da, hilean 541,27 euro baino gutxiago dituzte bizitzeko. Horrez gain, % 18,5 bizi da pobrezia erlatiboan, hilean 811,90 euro baino gutxiagoko diru-sarrerekin. Datu horiekin, Europako lurralde okerrenen artean kokatzen da Euskadi pobrezia erlatiboari dagokionez, Polonia, Espainia, Portugal eta Greziaren aurretik soilik. Horrez gain, 489.447 pertsona (% 22,7) daude pobrezia- eta bazterketa-arriskuan. Espainiako estatuan 13 milioitik gora pertsona daude pobrezia- edo bazterketa-arriskuan, biztanleen % 30 ia; baina, horrez gain, gero eta handiagoak dira berdintasunik ezaren tasak: % 10 aberatsenak biztanleria osoaren erdiak guztira dituen adina diru-sarrera ditu.

Gaur egun, tokian tokiko eragina duten eta mundu osoan islatzen diren eztabaida handiek markatzen dute gure klima: esaterako, EBren eta AEBren arteko Merkataritza eta Inbertsioetarako Itun Transatlantikoaren (TTIP) negoziazioak. 2013ko ekainaz gerotik ari dira negoziatzen proposamen hori, eta bi lurralde horien arteko merkataritza- eta inbertsio-harremanak erregulatzeko esparru berri bat proposatzen du, munduko merkatu handiena sortzeko asmoz. Baina TTIPa, CETAREN moduko antzeko hitzarmenak bezalaxe, merkataritza itun soila izatetik harago doa: enpresa handi transnazionalen interesei soilik mesede egiten dien akordio berri bat da, ekoizle txikien, kontsumitzaileen, merkatarien eta, oro har, herritarren kaltetan. Barnebiltzen dituen ekimenek eragin oso kaltegarria izango dute hainbat alorretan: ekologikoa, soziala, lanekoa, ekonomikoa eta osasunekoa, baita emakumeengan ere, eta defizit demokratiko nabarmen bat ekarriko dute berekin.

Zero Pobreziatik kezka begiratzen diegu TTIParen eta CETAREN moduko akordioen ondorio negargarriari: pobrezia eta desberdintasunak handitzea, eta giza eskubideak urratzea. Eta giza eskubideak, hain zuzen ere, politika publikoek guztiz bermatu behar dituzte, hiru auzi hauei aurre eginez bereziki: pobrezia, berdintasunik eza eta iraunkortasunik eza. Arazo horien aurkako borroka justizia globaleko kontu bat da; izan ere, munduko pertsona guztien giza eskubideak bete daitezela ari gara eskatzen. Belaunaldien arteko elkartasun kontu bat da, etorkizuneko belaunaldien garapena arriskuan ez jartzean baitatza.

Testuinguru honetan, funtsezkoa da gizarte zibilaren zeregina; beraz, estrategikoa da publikoaren kudeaketan aktiboki parte har dezala bermatzea. Merkataritza askeko itun horiek horren kontra doaz, hain zuzen: haien armadura juridikoak mugak jartzen dituzte demokrazia eta herrien subiranotasuna gauzatzeko. Horrez gain, isilpekotasun eta opakutasun handiz ari dira negoziatzen prozesu osoa, parlamentuen eta herritarren kontroletik at, Zuzenbide Estatuaren oinarriko printzipioak urratuz.

Pobrezia eta desberdintasunak iraunaraztea ez da ez justifikagarria ez saihestezina, herritarren eta politikarien borondatearen baitakoa baizik. Herritar guztiek aldarrikatu dezakete horien amaiera, salatuz, mobilizatuz, gizartean parte hartuz edo gure eguneroko jardunaren bitartez.

Horregatik, urriaren 17an, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunean, hau eskatzen dugu:

- Jokoaren hainbat arau errotik eraldatuko dituen eredu ekonomiko eta sozial berri bat. Hazkundearen, kontsumoaren eta lehiakortasunaren mitoak saihesteko aukera emango digun ordezkari eredu bat. Sozialki eta ingurumenari dagokionez jasangarria den sistema bat aldarrikatzen dugu, zorientasunera eta ongizatera eramango gaituena. Azken batean, aberastasunaren banaketa ekitatiboa, ingurumenarekiko begirunea, genero-ekitatea eta pertsona ororentzat bizitzeko duina xede duten bizimodu berrietarantz aurrera egitea.
- Estatuak eskura dituzten ahal bezainbeste baliabide bideratzea eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak gauzatu daitezkeen, baita murrizketa ekonomikoko garaietan ere.
- Sektore pribatuak, lege eta erregelamendu nazionalak betetzeaz harago, pertsona guztien giza eskubideen errespetua oinarri harturik jardun dezala.
- Merkatuaren arauketa desagerrarazteko prozesu neurrigabea geldiaraztea, munduari ekar diezazkiokeen eraginak direla eta: desberdintasunak eta pobrezia areagotzea.
- Estatuak beren gain har dezatela zerga-politika giza eskubideen betebeharrekin lotzeko konpromisoa, politika publiko gehiago eta hobeak ezartzeko diru-sarrerak handitzeko, kudeaketa garden eta parte-hartzaile baten bitartez.

